

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Anbulantzia bat utzi zaio Goizuetako suhiltzaile boluntarioen parkeari

*Zaharkituta geratutako aurreko ibilgailu bat ordeztuko du, eta harekin larrialdietako garraio sanitarioaren 40 bat zerbitzu ematen zituzten urtean*

Osteguna, 2016.eko azaroak 24

Nafarroako Gobernuak duela gutxi ambulanzia bat utzi dio Goizuetako suhiltzaile boluntarioen parkeari; parke horrek, udalerrri horretan eta Aranon bereziki, larrialdietako garraio sanitarioaren 40 bat zerbitzu ematen ditu urtean.

Ibilgailuak aurreko beste bat ordezkatzeko du zerbitzu hori betetzeko gehieneko epea gainditu ondoren, hau da, matrikulatu zenetik, hamar urte. Lagatako ambulanzia, oinarritzko bizi-euskarrikoa, Nabaskozeko suhiltzaileen eskualdeko parketik dator, han berri bat izango baitute.

Goizuetako suhiltzaile boluntarioak txandaka aritzen dira lanean eguneko 24 ordutan larrialdietako garraio sanitarioko zerbitzu hori emateko, eta dagoeneko SOS-Navarrak 32 alditan erabili du aurtan.

Anbulantziaren lagapena maitatzean Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilari M<sup>a</sup> José Beaumont suhiltzaile boluntarioak dituzten sei udal nafarrekin (Agoitz, Bera, Goizueta, Izaba, Leitza, Lesaka eta Luzaide) izenpetutako [lankidetzako esparru-hitzarmen](#)aren barnean sartzen da.

### Suhiltzaile boluntarioen parkeak

Gaur egun, Babes Zibileko Zerbitzuak emandako informazioaren arabera, Nafarroak guztira 141 suhiltzaile boluntario ditu. Zehazki, 13 Agoizko parkean, 11 Beran, 34 Goizuetan (ambulanzia eramateko laguntzaileak barne), 14 Izaban, 26 Leitzaan, 20 Lesakan eta 23 Luzaiden.

Nafarroako Gobernuak aurtan 191.000 euroekin finantzatu ditu suhiltzaile boluntario horien zazpi parkeak. Zenbateko horren zati handiena gastu arruntak ordaintzeko erabili da, esaterako: aseguruak (boluntarioena nahiz ibilgailuena); ibilgailu berezietarako gida-baimenak lortzea; arropa, ekipamendu pertsonala eta material espezifikoak; ibilgailuei lotutako gastuak; anoa-hornidurak eta prestakuntza.



Goizuetako suhiltzaileei lagatako ambulanzia.

Hainbat inbertsio ere finantzatu dira, adibidez: Berako parkera sartzeko ateak, Goizuetari lagatako anbulantziaren egokitzapena eta ekipamendua, Iزابako kamioi bati balazta elektriko bat jartzea, Leitzarako motoPONPA eramangarri bat eta Luzaidarako esku hartzeko kaskoak eta linternak erostea.

### **226 esku-hartze 2016an**

Iragan urtean 226 esku-hartze egin ziren, hiriko eta basoko suteak, bilaketak eta erreskateak, bereziki. Gainera, hileko larunbat batean prestakuntza-jarduerak, materiala berrikusteko jarduerak eta erabiltzeko praktikak egiten dituzte. Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko suhiltzaile profesionalek ekimen horien jarraipena eta bide-laguntza egiten dute, eta horretarako, zenbaitetan, Gobernuko baliabideak eta ekipoak erabili dira ere, kamioiak, helikopteroak eta material txikiagoa, esaterako.

Suhiltzaile boluntarioen parke guztiek bi kamioi dituzte (habetako bat basokoa, normalean) eta lur orotako beste bi ibilgailu, Goizuetakoak eta Iزابakoak salbu; bi toki horietan, lur orotako ibilgailu baten ordeZ anbulantzia bat eta elurra kentzeko makina bat dute, hurrenez hurren. Agoitzen, gainera, kamioneta bat dute.